

GERNIKA / Irakurzaletasuna sustatzeko programa abiatuko du liburutegiak

Lau eta hamabi urte arteko umeei zuzendutako urteko programazioa aurreikusi du udal liburutegiak.

M. ORUE

Udal liburutegiak urte osorako programazioa aurreikusi du, aurten lehenengoz. Bereziki irakurzaletasuna sustatzea izango da programazio horren helburua eta lau eta hamabi urte arteko umeei zuzenduta egongo da. Kultura zinegotzi Ekain Ormaetxearen esanetan, «Udal liburutegiak izan behar duen garrantzia ikusirik, bertan gauzatu beharreko ekimen propioak antolatzeko beharra somatu genuen eta ibilbide berri honetan, urratsez urrats hastea erabaki dugu».

Ekitaldietan lehenengoa maiatzean hasiko da, `Liburutegiak eskoletara´ deritzon programaren bitartez. 4 eta 6 urte arteko umei zuzenduta dago aipatu programa eta parte hartzeko apirilaren 18a baino lehen eman beharko dute ikastetxeek izena. Batez ere, «liburutegia zer den irakatsiko zaie ikasleei, liburuak zer diren edota nola gozatu irakurtzen», Kultura sailaren arabera. Maiatzaren 5etik 30era bitartean gauzatuko dute programa, ikastetxeetan bertan.

Bestetik, 6 eta 12 urte arteko umeak izango dira `Tailerrak´ izeneko programaren protagonista. `Liburutegiko gida ilustratua´ izango da tailerretan lehenengoa, apirilaren 12an, 11:30etik 12:30era liburutegian bertan. Tailer horretan, liburutegiaren definizioa egin beharko dute umeek.

Hainbat ekitaldi

Maiatzaren 10ean izango da bigarren tailerra, `Idazketa tailerra´. Horretan, ipuin bat idatzi beharko dute parte-hartzaileek. Ondoren, ekainaren 14an Txotxongilo tailerra izango da eta idatzitako ipuina antzestu ahaliko dute umeek. Uztailean `Udako liburutegia´ ere antolatu du Udalak, baina oraindik zehaztu gabe daude ekitaldiak.

Udako oporren ostean berriro hartuko dute martxa tailerrek. Urriaren 11n izango da lehenengoa: `Ipuin kontalaria´. `Idazketa tailerra´ eta `Ilustrazio tailerra´ azaroaren 8an eta abenduaren 13an izango dira, hurrenez hurren.

Izena, aldez aurretik

Tailer guzti horietan parte hartzeko aldez aurretik eman beharko da izena liburutegian bertan edota 94 627 02 01 telefono zenbakira deituz. Parte-hartzaileek Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Zerbitzuak argitaratutako `Familian irakurzaletasuna bultzatzeko gida´-ren ale bana eskuratuko dute.

«Programazio berria aurrera eraman ahal izateko, gaztetxoek, ikastetxeen eta gurasoen inplikazioa beharrezkoa da», Ormaetxearen arabera.